

HILOBIAK

Fernán Martínez de Pangua zaharraren hilobi-lauda

Fernán Martínez de Pangua zaharra kanonigoaren hilobi-lauda, harrian landua, XVI. mendearen hasierakoa da. Armarrria dauka erdian, eta karaktere gotikotan idatzitako inskripzio bat goiko aldean eta lauzaren inguru osoan. 1530ean, Fernán Martínez de Panguak, gaixorik eta heriotzaren zain, testamentua idatzi zuen, bere familia-kaperan lurperatua izateko borondatea adieraziz. Izan ere, kapilautza bat sortu zuen bertan, bere ondasunetako batzuen errentaren bidez mantendu nahi zuena. Azkenik, xedatuta utzi zuen bezala, kaperan zeukan hobian bertan ehortzi zuten, nabarmentasuna ematen zion hilobi-lauza honen pean.



Egilea: Anonimoa

Data: XVI. mendearen hasiera

Teknika: Harri landua

Neurriak: 191 x 95 x 24 cm

Kokapena: Santa María Katedrala (Vitoria-Gasteiz)



Oinarrizko hautaketa bibliografikoa:

AZCÁRATE RISTORI, José M.^a de. “Catedral de Santa María (catedral Vieja)”. En: PORTILLA VITORIA, Micaela J. *et al.* *Catálogo Monumental Diócesis de Vitoria: Ciudad de Vitoria*. Vitoria-Gasteiz: Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, tomo III, 1968, p. 104.

MARTÍN MIGUEL, María Ángeles. *Arte y cultura en Vitoria durante el siglo XVI*. Vitoria-Gasteiz: Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 1998, pp. 194-195.

BARTOLOMÉ GARCÍA, Fernando R. “Fundación de la capilla de la Concepción de la catedral Santa María de Vitoria”, *Ars Bilduma*, n.º 2, 2012, pp. 15-34.

Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García
Argazkiak: Quintas argazkilariak

araba álava
foru aldundia diputación foral

-k finantzaturako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:

 **katedrala**
SANTA MARIA



arte.catedralvitoria.eus

Bisita gidatuak

Informazioa eta erreserbak

Tel. 945 255135

www.catedralvitoria.eus

Bisitarien zentroa

Santa María kantoia 3
01001 Vitoria-Gasteiz

